


laister berri



001

HAZIOARTEKO
LANKIDETZA BEKAK

002

LOIMATZ JAIEAKO
KARTEL LEHIAKETA

003

PUNTUTAKO
CIDABAIMENA

004

EMAKUMEAREN
BERDINTASUNA
GIZART EAN

005

ICARTZA SARIA

006

ANTZERKI GARAI

007

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO BEKAK 2007

Beasaingo Udalak, Gizarte Ongizate sailaren bidez, 2007. urtean Beasaingo gazte laguntzaileentzat bekak emateko oinarriak aurkeztu berri ditu. Helburu horretarako 9.617,22 €'80-ko diru kopurua erabiliko da eta interesa duten gazte laguntzaileek 2007ko apirilaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak.

Oinamari hauen xedea, Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzak ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun-baloreak sustatzea da. Horretarako, aukeratutako pertsona gazteek, herrialde horietan zuzenean parte hartuko dute garapeneko lankidetzak-ekintzetan, gutxienez ere bi hilabeteko denboraldia eginez eta tokian tokiko egoerak ezagutuz.

Beasaingo Udalak, jarduera burutu behar den tokian Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jartzeko egin behar duten bidaiaren joan-etorri gastuak ordaindu ahal izango ditu; herrialde hartara joateko behar den bisatua eta sartzeko edota irteerako zergak barne; eta baita hautatutako partaide bakoitzaren gaiotasun eta istripuetarako aseguruak, ostatu-gastuak eta mantenuarenak ere. Gehienera 3.000 €'80-ko diru-laguntza onartuko da pertsonako.

Eskaerak apirilaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dira Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari zuzenduta eta Udaleko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu 8:30etik 13:30erako ordutegian.

laister berri

Diseinua:
AH Diseño
Maketazioa:
AH Diseño
Erredakzioa:
AH Diseño
Publizitatea:
AH Diseño
Imprimaketa:
Gráficas
San Martín C.B.
Lege Gordailua:
SS-654/96
Erredakzioa
helbidea:
Martina
Maiz 3/2.
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ah@clickah.com

Beasaingo Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale banatzen
ditu hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragilea:
kultura saila



Beasaingo udala

laister berri

LOINATZ JALETAKO KARTEL LEHIAKETA

Beasaingo Udaleko Kultura batzordeak lehiaketa antolatu du 2007ko jailetarako kartela aukeratzeko. Ondoren zehazten ditugu lehiaketa hori arautuko duten oinarriak.

- 1.- Lehiaketa horretan edozeinek har dezake parte, inolako mugarik gabe.
- 2.- Edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira: collagea, pintura, eta abar; Lanen neurriak honako hauek izan behar dute: 42 x 60 cm. Edo horren proportzioko tamaina.
- 3.- Lehiaketarako gaia Beasaingo Loinatz jaiak izango da, eta lanetan Beasain, 2007ko LOINATZ JAIAK, Maiatzaren 18tik 27ra" azaldu beharko du idatzita.
- 4.- Lanak inoiz argitaratu gabeak izan behar dute.
- 5.- Epaimahaiak 360€-ko sari bakarra emango du.
- 6.- Saria eman gabe gera daiteke epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko kalitate-mailarik ez badute.
- 7.- Lanak Beasaingo Udaletxeko Herriarrentzako Harrera-bulegoan aurkeztu beharko dira, 2007ko martxoaren 23ko eguerdiko 13:00ak baino lehen.
- 8.- Lanak, egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztu behar dira. Lanarekin batera, kartazal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eta NA-ren fotokopia bidali behar dira.
- 9.- Epaimahaiak 2007ko apirilaren 4a baino lehen emango du bere erabakia eta bera apelaezina izango da.
- 10.- Loinatz jailetako antolatzaileek aurkeztutako kartelek in erakusketa bat antolatu ahal izango dute jaien barruan. Horregatik saritu gabeko lanak, maiatzaren 28tik aurrera, hogei eguneko epean jaso ahal izango dira aurkeztutako leku berean. Aipatutako epea lanak jaso gabe igaroz gero, egileak utzitakotzat eman dituela pentsatuko du Udalak, eta, ondorioz, inolako eskubide eta kalte ordainik aitortu gabe, egoki irizten dion moduan bereganatuko ditu.
- 11.- Saritutako lana Udalaren esku geldituko da eta, argitaratzeko, ezagutarazteko eta abarretarako eskubide guztiak berak izango ditu.
- 12.- Udalak aurkeztutako lanak zainduko ditu baina lanen osotasunaren eta egoera onaren erantzukizunik ez du izango, batez ere euskarri gogorrean aurkeztu ez diren lanena.
- 13.- Lehiaketara aurkezte soilak, oinarrizko goitik behera onartzea dakar.

PUNTUTAKO GIDABAIMENA

batu edo kendu ?

Dagoeneko puntutako gidabaimenari buruzko kanpaina amaitutzat eman du Beasaingo Udaltzaingoak. Kanpaina honen bidez informazio zabala eman dio Udaltzaingoak gidariari bi astetan zehar. Informazioak bi atal nagusi izan ditu: batetik, puntuak kentzen dituzten arau-hausteak zeintzuk diren, eta bestetik, gidari ona izanez gero puntuak nola gehitzen diren.

Kanpaina herriko hainbat tokitan egin da: Ezkiaga etorbidean – Oriamendi kalean – Igartza Cleta kalean – Barrendain plazan – Nafarroa etorbidean eta Gipuzkoa plazan. Gainera Udaltzaingoaren bulegoan eta salaketa orriarekin batera, informazioa ere eman da. Guztira 2.250 ale banatu dituzte: 1.000 ale elebidun, 500 ale euskarazko eta 750 ale gaztelerazkoak. Kanpainak iraun duen bitartean, Udaltzaingoak sarrien ikusi dituen arau-hausteak bi izan dira: Segurtasun-uhala jarri gabe gidatzea eta sakelako telefonoz hitz eginez gidatzea.

Udaltzaingoaren hitzetan gidarien jarrera oso ona izan omen da eta gehiengoak kanpainaren berri baduela esan omen du. Azpimarratzekoa halaber atzeritar gidariak geroz eta gehiago direla eta kasu batzuetan komunikatzeko garaian zailtasunak izan dituztela.

laister berri

EMAKUMEEN BERDINTASUNA GIZARTEAN ESKUALDEKO JARDUMALDIAK



Eskualdeko lau emakume-elkartek (Beasaingo ASMUBEk, Zumarragako Eraldatzenek, Ordiziako Kimetzek eta Tolosako EBELEk) lehendabiziko aldiz eskualdeko jardunaldiak antolatu dituzte topaketarako gune bat sortzeko helburuarekin non emakumeen kezkek eztabaida irekian eztabaidatu eta gogoeta bidez adostuko diren.

Lehendabiziko honetan hautatu diren gaiak emakumeen berdintasun-eskubidean oinarritzen dira bai ekonomian, politikan, etxean, familian, kulturean, denbora librean eta baita aisialdian ere; hitz batean, esanda erantzunkidetasunean.

Sentiberatze-helburu argia dute eskualdeko jardunaldi hauek. Egia baita ezberdintasun handiak daudela gizartearen partaidetzan sexu arazoak direla eta. Hori dela eta emakume-elkarte ezberdinek elkarlanean lan borobila burutu dute jardunaldi horiek prestatzen, kezka berak izan ditzaketen gainerako pertsonen ere parte har dezaten.

Eskualdeko jardunaldi horiek Beasainen izango ditugu hilaren 8an 18:00etatik aurrera ondorengo ekintzekin:

ERAKUSKETA, grafiko, estatistika eta jolas partehartzaileekin, non emakumeek sexu-arazoengatik ekonomian, politikan, etxean, familian kulturean, denbora librean eta aisialdian pairatzen duten ezberdintasuna agerian jarriko den.

HITZALDIA Jabier Lertxundi ekonomialari eta soziologoak emango du emakumearen partaidetzarako barne-trabaren inguruan.

ANIMAZIOA eta BAKARRIZKETA May Gorostiagaren eskutik.

laister berri

IGARTZA SARIA. VIIIMENDIKO ARGAZKI LEHIAKETA



PARTAIDEAK: Nahi duten zaletu guztiak.

GAIA: Mendia eta Natura.

LANAK: Zuri-beltzean eta koloretan bost argazki egile bakoitzeko. Lanak aurretik inon saritu gabeak izan behar dute.

NEURRIA: Teknikaz eta aurkezteko moduz askatasun osoa, gehienez ere 30 x 40 edo 40 x 50 cm-ko kartotxuez sendotuta. Argazkiaren atzealdean izenburua, datu pertsonalak, telefonoa eta elkartearen adierazi behar da.

BIDALKETA: Korreoaz: Argizpi Argazkizale Elkarte, 13. posta-kutxa, 20200 Beasain. Eskuz: Aizkorri Mendizale Elkarte.

EPEA: Jasotzeko azken eguna 2007ko martxoaren 7a.

SARIAK:

Lehenengo saria	150 € eta garaikurra
Bigarren saria	120 € eta garaikurra
Hirugarren saria	90 € eta garaikurra
Elkartekoa eta herrikoa	90 € eta garaikurra

laister berri

ANTZERKI GARAIA



Martxoaren 9an, USLRBE ANTZOKIAN. Sarrera 10 €, ELISKARAZ

EMAKUMEAK IZARAPEAN

Antzezlan hau sexuaz hitz egiteko da; emakumeen sexu-bizitzaz hain zuzen ere. Beren hutsuneak, desioak, ametsak, sekretuak, eta frustrazioak beren oheetan. Eszenatokian adin eta maila sozio-ekonomiko ezberdineko bost emakume agertuko dira. Era berean, gizon bat ere agertuko eszenatokian, paper ezberdinak antzeztzen (terapeuta, lagun, aingeru goardako, ...).

Uste duguna zera da, nola gizonak hala emakumeak amodioaren aurrean erotu egiten garela; geure burua, ondoan duguna, edota geure bikote-kidea, adiskidea edo ama maitatzeko daukagun ahalmenarekin. Baina hain zuzen ere sexu-jardunak konfiantza eskatzen dio maitaleari espresuki, bere burua bestearen eskuetan uztea eta nahitaezkoa da "eramaten uztea", plazeraren labirinto atsegin bezain izugarrian barrena ibili ahal izateko.

laister berri

COIENIZ ZINE KLUBA

AGUA

PALINDROMES

EL SINDROME
DE SUEÑSSOM

Martxoak 8,
osteguna.



Martxoak 22,
osteguna.



Martxoak 29,
osteguna.



Sinesmen hinduen arabera, emakume bat ezkontzen denean gizon-erdi bilakatzen da... Gizona hiltzen bada, bere gizon-erdia ere, emaztea, hil egin dela suposatzen da. Liburu sakratuen arabera, emakume alargun batek hiru aukera besterik ez ditu: bere senarraren anai gazteenarekin ezkondu, senarrarekin batera erre edo bere buruari erabat uko eginda bizi.

Aurretik atzera eta atzetik aurrera berdin irakurtzen diren hitz eta esaldiak dira palindromoak. Ezkerretik eskuinera irakurtzean ezezaguna zaigun zerbaitekin egingo dugu topo. Eskuinetik ezkerreara irakurtzean ordea, ezaguna izango zaigu aurkituko duguna. Añiva Victorrek ume bat eduki nahi du. Ia lortuko du bere helburua, baina gurasoek eragotzi egingo diote.

Tóm-ek 28 urte ditu eta bere aitaren pausoak jarraitu beharko ditu ondasun higiezinaren negozioan. Topaketa baten ondorioz, bere ama bezala piano-jotzaile bihurtu daitekeela uste du. Entzunaldi baterako sutsuki prestatzen hasten da frantsesik hitz egiten ez duen neska piano-jotzaile txinatar batekin; musika da bien arteko hizkuntza bakarra.